

# MUGIMENDU SOZIALETAN GERTATZEN DIREN ERASO SEXISTAK

IBILBIDEA, KOKAPENA, KUDEAKETARAKO OINARRIAK  
ETA ERRONKAK

# MUGIMENDU SOZIALETAN GERTATZEN DIREN ERASO SEXISTAK<sup>1</sup>: IBILBIDEA, KOKAPENA, KUDEAKETARAKO OINARRIAK ETA ERRONKAK\*

## AURKIBIDEA

### 1. Bilgune Feministaren ibilbidea eta kokapena

### 2. Mugimendu sozialetan gertatzen diren eraso sexisten kudeaketan aintzat hartzeko oinarriak

#### 2.1 Informazioaren kudeaketa

#### 2.2 Erasotua izan den pertsonaren beharrak

#### 2.3 Erasoa egin duenarekin zer?

#### 2.4 Prozesua sostengatzeko egitura

### 3. Aurrez aurre ditugun erronkak

#### 3.1 Erronkak

---

#### \*HASIERAKO OHARRA:

Azkeneko urteetan bilgunekideok izan dugun esperientziatik osatu dugu behin-behineko txosten hau. Oraindik zalantza eta galdera asko ditugu gai honen inguruan, jakin badakigulako justizia eredu feministetan eta prozesu berrosatzaileetan sakontzen dugun heinean, proposamen osoago bat egiteko baldintzetan izango garela. Trantsizio une honetan, bada, zaila egin zaigu idatzizko dokumentu bat osatzea eta hau zabaltzearekin ere beldurrak ditugu momentuko ikuspegiaren ageriko mugengatik. Hala ere, uste dugu alde batetik, une honetan gako batzuk urgentziazko kasuak kudeatzeko lagungarriak izan daitezkeela, eta, bestetik, bidean eta sortzen diren eztabaidetan aurrera egiteko abiapuntu bat izan daitekeela. Osatuz eta hobetuz elkarrekin bidea argitzen joango gara.

---

<sup>1</sup> *Eraso sexisten* kontzeptua erabili dugu, bereziki gizonek emakumeei\* egindako erasoetan zentratu baikara. Dena den, badakigu antzeko botere dinamikak eta erasoak birproduzitu daitezkeela sexu berdineko bi pertsonen artean. Kasu honetan, aldagai espezifiko batzuk kontutan hartu beharko diren arren (eta gu ez gara kasu horiek zehazki aztertzeraz sartu), botere maskulino hegemonikoaren gailentze bat dago, eta ondorioz, kasu horietan hemen planteatzen diren oinarriak ere baliagarriak izan daitezke, kasu horiek praktikan kudeatzeko orduan.

## 1. BILGUNE FEMINISTAREN IBILBIDEA ETA KOKAPENA

Euskal Herriko Bilgune Feminista 2002an sortu zen, eta hasiera hartan, lau sektore estrategikoetan biltzen zen bere jardun feminista: kultura, sozio-ekonomia, komunikabideak eta hezkuntza. Hori horrela, patriarkatuak emakumeak<sup>\*2</sup> azpiratzeko duen tresna nagusia indarkeria sexista izanik, sektore horietan guztietan bortizkeria sexistak zuen eragina aztertu eta horiei aurre egiteko ekinbideak lantzeari ekin genion. Hala ere, urteak aurrera joan ahala, eta gure erakundearen jardun feministari lotuta egindako eztabaidetan ateratakoak oinarri hartuta, egiturazko sektore horietan barnebidurik zeuden adarrei, hau da, ildoetara eutsi genien, artean, indarkeria sexistaren ildo espezifikoiari.

Hori dela eta, indarkeria sexistaren definizioaren inguruan egin genituen eztabaidetan zein horri aurre hartzeko estrategien inguruan egindakoetan, ondorio argi bat atera genuen: emakumea\* biktimizatzen bideratutako askotariko politika publiko zein bestelakoan aurrean, emakumeak\* indartzea, subjektu politiko izateko tresnak eskaintzea zela gure helburua, eta horretarako, emakumeentzako\* Autodefentsa Txokoak sortu genituen. Horietan ekin genion Autodefentsa Feminista lantzeari. Horrez gain, herri jai parekideetan ere aritu gara buru-belarri, bai protokoloak egiten, bai askotariko eragileen arteko elkarlana sustatzen. Azken prozesu honen oinarrian onarpen bat dago, hau da, espazio autogestionatu eta herri jaietan ere eraso sexistak, zein beste hainbat, gertatzen direla, eta erasotzaileak ez daudela soilik kanpoan, mugimendu sozial, sindikal zein bestelakoetan jarduten dutenak ere badirela erasotzaileak.

Alde horretatik, eta azken horri lotuta, urteak daramatzagu herri mugimenduetan, gaztetxeetan zein ezker abertzalean gertatu diren eraso sexisten kudeaketan, aholkulari zein bidelaguntza lana egiten. Egia da mugimendu sozialetan gertatzen diren eraso sexistenganako kontzientzia eta ardura areagotu egin dela azken urteetan, betiere eragile sozial, politiko, sindikal zein gune autogestionatuetan feministok egindako lanari esker. Protokoloak areagotu dira edo ari dira, baina zailtasun eta zalantza dezenterekin, hortaz, oraindik ere, feministekiko laguntza eta aholku eskaerak egon badaude, asko gainera.

Ondorioz, Bilgune Feministako militante askok jardun dugu erakunde mixtoetan gertatzen diren eraso sexisten kudeaketan eta protokoloen sortze prozesuetan bidelagun moduan. Baina lan nekeza eta zaila da. Gainera, askotan ez dira asebetetzen erasoak pairatu duen pertsonaren beharrak, eta bestalde, erasoak egin duenarekin egindako prozesuekin ere ez gara asetu, eta zalantza asko izan ditugu. Hori guztia kontuan hartuta, orain dela pare bat urte lan talde berezitu bat sortu genuen mugimenduen baitako eraso sexisten gaiari lotuta, Bilgune Feministan ditugun adostasunak, kezka nagusiak, korapiloak eta aurrera begirako erronkak zehazteko. Hori horrela, prozesu bat egin dugu aldagai horiek guztiak eztabaidatu eta

---

<sup>2</sup> **Emakume** kategoria erabiltzen jarraitzen dugu gure egungo errealitatean politikoki eragiteko oraindik baliagarria delakoan, nahiz eta sexu-genero sistemak markatzen duen binomioaz gaindi bizipen, ibilbide, ahalmen eta identitate anitzak ere bagaren (bollerak, trans...)

adosteko, izan lan taldean, izan Bilgune Nazionalean (hilero egiten dugun bilkura erabakiorra, militante guztiei zabalik dagoena). Jarraian duzuen dokumentu hau prozesu horren emaitza da, bukatugabea, zabalik baititugu, oraindik orain, hainbat eztabaida, besteak beste: eraso egin duen pertsonarekin zer eta nola egin, zer nolako justizia eredu behar eta desio dugun, mugimendu sozialetan gertatzen diren eraso sexisten kudeaketan aholkularitza eta laguntza profesionala behar den edo ez...

Besterik gabe, dokumentu honen oinarrian dago Bilgune Feministako militante askoren esperientzia politikoa, kasu zehatzetan bizitakoetatik, ikasitakoetatik eta hutsegindakoetatik abiatuta, mugimendu sozialetan gertatzen diren eraso sexisten korapiloak askatzeko egindako argitze ahalegin eta sistematizazio ariketa. Aurrerantzean ere, eraikitze bidean egongo dena.

## 2. MUGIMENDU SOZIALETAN GERTATZEN DIREN ERASO SEXISTEN KUDEAKETAN AINTZAT HARTZEKO OINARRIAK

Gure genero-sisteman erroturik daude pertsonen arteko desberdinkeria sozialak, eta horren adibide ditugu, hala nola emakume\* eta gizonen arteko botere-harremanak, sinbolikoki nahiz egituraz sortzen eta mantentzen direnak. Herri mugimendu zein mugimendu sozialak genero-sistema horren parte dira, eta desberdinkeria zein botere-harreman horiek zehazki landu ezean, ikusi dugu genero-sistema horren funtzionatzeko moduak erreproduzitu ohi direla. Ideologia feminista izatea garrantzitsua bada ere, ez da nahikoa izango. Ikusi dugu parekidetasuna aldarrikatu zein landu den kolektiboetan ere gertatzen direla erasoak. Mugimendu sozialetan gertatzen diren eraso sexistak kudeatzeko egiten ditugun protokolo eta lanak egin arren, argi dugu, jatorrian, kolektibo guztiak sortzen diren unetik bestelako lanketa osoagoak egiteko beharra dutela, eta lehenetsi behar direla espazio seguruak sortzea, bai mugimenduetan, bai kolektiboetan. Hortaz, kasuak kudeatu aurretik, kasu horiek ez gertatzeko lanaren garrantzia azpimarratzea da gure oinarri sakonena.

Horrez gain, behin kasuak gertatzen direnerako kolektibo bakoitzak kudeaketa horretarako aurre-lanketa zein aurre-antolaketa egitea ere ezinbestekotzat jotzen dugu, gure testuinguru eta genero-sisteman aldaketa sakonagoak eman ezean behintzat. Aurrerago horri buruz mintzatzeko garen arren, uste dugu eragile bakoitzak kasu hauen kudeaketa egiteko egitura bat aurrepentsatua izan behar duela.

Euskal Herriko Bilgune Feministak maiz kudeatu ditu halako kasuak, eta badirudi egun gero eta gehiago azaleratzen direla; ondorioz, kasuen kudeaketekin zer egingo dugun pentsatzea eta hausnartzea dagokigu. Nork kudeatuko ditu? Nola kudeatuko ditugu? Norekin batera? Nola egin jarraipena? Zein leku hartuko du Euskal Herriko Bilgune Feministak herri bakoitzean? Badakigu kasu bakoitza mundu bat dela, eta zaila dela orokortzea; herri bakoitzeko errealitatea, herri horretako taldea, gainontzeko eragileekin dugun harremana... hori guztia ere oso aldakorra baita.

Atal honetan, zenbait oinarri bildu ditugu galdera horien guztien inguruan pentsatzeko eta gogoetatzeko lagungarri izan daitezkeenak.

## 2.1 INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

Informazioa = boterea. **Kontu handiz ibili** behar gara esku artean dugun informazioarekin. Garrantzitsua da informazio fluxua eta komunikazioa kontrolatzea prozesu osoan zehar, hala nola: zer nolako informazioa ematen den eraso bat gertatu dela jakiten dugunean (eraso mota, informazio zehatza, izenak...); norekin partekatzen den informazio hori; publiko egiten den edo ez; komunikabideei helarazten zaien edo ez; hartzen diren erabakiak eta hurrengo pausoak zeintzuk diren partekatzen diren ala ez...Horretarako beharrezkoa da komunikazio bideak errespetatzea eta prozesua koordinatzen dutenenganako konfiantza eta errespetua bermatzea; askotan talde motorea deslegitimatu ohi baita.

**Zurrumurruek oso arriskutsuak dira** eta ez dute prozesuan laguntzen. Alde batetik, gertatu daiteke erasotua izan den pertsona biktimizatze joera egotea, gehiegizko babesa edo berak erabaki ez duen gehiegizko esposizio publikoa edukitzea. Beste alde batetik, gertatu daiteke bere hitza zalantzan jartzea, bertsioen guda hastea, eta bera epaitua izatea. Horrela, **emakumeon\* bizipenak eta hitzak zalantzan jartzen dira**. Gaur egun, hein handi batean, guztiok gara politikoki zuzenak, eta, hortaz, eraso guztien aurrean kontra agertu eta hauek salatzeaz gain, erantzun bat eman behar denaren diskurtsoa oso barneratuta daukagu. Horregatik, hasieran, ez dute oihartzunik erasotua izan denaren bizipenak zalantzan jartzen dituzten ahotsak. Ahots edo iritzi horiek atera ez arren, hor baldin badaude lehenago edo beranduago aterako dira. Hori dela eta, askotan, egin beharreko prozesua ez da denboran sostengarria izango (esaterako, behin denbora pasatzean eraso egin duena babesten hastea). Garrantzitsua da beraz, erabakitako komunikazio bideak errespetatzea eta prozesua koordinatzen dutenengan konfiantza eta errespetua izatea, baita erreferente feministen aitortza edo aritu/adituak izan diren bestelako kideena ere.

Kudeaketa prozesu hauetan, **gatatzak egon daitezke**, bereziki informazio, kontakizun eta bizipen ezberdinak agertzen direnean, hala eraso egin edo jaso duenaren artean, nola eraso sexista gertatu dela salatu dutenekin. Lehenengoari dagokionez, uste dugu bi aldeak entzun behar direla, informazio guztia eskuratu nahian, baina horrek, maiz, eragiten du bertsioen gudan eta epaile lanetara garamatza. Baina ezin dugu ahaztu ez direla posizio berdinean dauden bi pertsona: herritarren arteko botere harremanak daude oinarrian, eta, horien ondorioz, jendarte patriarkalean emakume\* gisa edo gizon gisa sozializatzean bizi ditugun zapalkuntzak eta pribilegioak. Bigarrenari dagokionez, bai mugimendu feminista, bai mugimendu sozial, bai kolektibo horietako feministek eraso sexista horiek salatzen dituztenean, konfrontazio egoera handiak bizitzen dira. Taldearen zati handi batek erasotua izan den kidearen bizipenak zein sentipenak zalantzan jartzen dituztenean, egoera eraso jasan duenaren kontra jartzen da, eta prozesu hori oso mingarria izan ohi da. Antzeko egoeraren bat pairatu dutenek diote, askotan, min gehiago ematen diela jendearen jarrerak -hala nola, euren hitza ez sinesteak eta zalantzan jartzeak- erasoak berak baino. Izan

ere, komunitate politiko eta afektibo batez ari gara. Halaber, sinesgarritasun ezak, bigarren indarkeria prozesu bat eragin dezake, hala nola, justizia aparatuekin gertatzen den moduan. Kontu handiz ibili behar gara horrekin.

Bestalde, joera handia dago **erasoa egin duena demonizatze**ko, hau da, munstro bilakatzeko<sup>3</sup> eta horrek eraso egin duenarekiko erabaki gabeko “heriotza soziala” eragin dezake, hau da, eraso egin duenaren kontrako boikot-a eta bazterketa soziala. Horrek berak prozesu bat hasteko behar den motibazioa zapuztu lezake.

Egokiena litzateke hasieratik erabakitzea zein izango den **kasua kudeatuko duen pertsonak/taldea/egitura\*** (batzuetan, protokoloetan zehaztua egon daiteke). Hau erabaki gune nagusia bada, **ondo erabaki behar da zein den bertatik irtengo den informazioa** eta hori nori (kolektiboko pertsona guztiei, publikoa egin, komunikabideei...) eskainiko zaion.

\* 2.4. puntuan sakonduko dugu honen inguruan.

## 2.2 ERASOTUA IZAN DEN PERTSONAREN BEHARRAK

**Lehentasuna izango dute erasotua izan denaren beharrek eta denborek.** Lehenengo egin beharrekoa berarengana jotzea izango da, bere bizipenak entzun eta bere beharrak zeintzuk diren jakitea. Ezin bagara berarekin egon, informazio hori konfiantzazko iturrien bidez lortzen saiatu beharko ginatke.

**Ez aurreikusi pertsona horren beharrak.** Intentzio onez betetako susmoekin joera paternalistak izan ditzakegu, beraz, garrantzitsua da pertsona entzutea eta bere benetako beharrak ezagutzea. Egoera horiek konplexuagoak dira eraso jasan dutenak bat baino gehiago direnean. Kasu horietan, askotariko behar eta estrategiak nahasten dira. Maiz aukera anitzak ematen dira, eta beraz, horien arteko oreka bilatu beharko da.

**Lagundu, “babestu”.** Askatu gabeko korapilo batzuen aurrean topatzen gara, hemen. Batetik, erasotua

---

<sup>3</sup> “**Zer egingo dugu erasotzaileekin?**” Argia, Onintza Irureta, 2018/07/27. “Gure solaskide baten ustez “erasotzailea kanpora!” leloak jada ez du balio. Erasoez eraso izena hartzen ez zuten garaian, indarkeria matxistatzen hartzen ez ziren garaian, eta noski salatzen ez ziren garaian, halako gertaerak edo egoerak ozen kontatzeko behar handia zegoen, kalera ateratzeko beharra. Orduan, kontzientziak esnatzeko balio izan zuen. Defentsa lanean ari ziren emakumeak” (...) “Gaur egun, erasoak bistarago daude gizartean. Amorrualdian hartutako erabakiak izan dira sarri, momentuko erantzunak, adibidez, taldetik botatzea, edo herritik botatzea. Eta gero zer? Iruñetik bidali bada Baionan bizi daiteke. Nork ziurtatuko du berriz ez duela gauza bera egingo? Ez da inolako lanik egin bergizarteratzeko eta berriz eraso dezake.kartzela eta zigor sistemak pertsonak bergizarteratzeko ez badute balio, eta pertsonak bergizarteratu daitezkeela uste badugu zer egin erasotzailearekin?” (...) “Justizia klasikoari ez, baizik eta justizia berrosatzailea edo konpontzailea izeneko filosofiari begira ari dira lanean gure solaskideak” (...)

izan denak ez badu ezer egin nahi, kolektiboak zilegitasuna du zerbait egiteko? Bestetik, ze puntutaraino bere nahiek baldintzatu dezakete prozesu guztia, eraso egin duenak hartutako ardurak bete eta lanketa egiten badu? Eta azkenik, beharrak eta nahiak, nola identifikatu batzuk zein besteak? Nola hartatu errespetuz? Horren aurrean guretzat eraso pairatu duenaren beharrak dira iparrotzat eta beraz, erantzuna ere behar horiekin armonian emango dugu, gure laguntza eta babes osoa edukiko duelarik. Era berean, justizia berrosatzailearen bidean, gerta daiteke eraso pairatu duenak horretarako aldarerik ez izatea, eta bere segurtasunareko edo lasaitasunerako neurri punitiboagoak nahi izatea. Kasu honetan, onartu beharko dugu kasu batzuetan norantza ideologiko desberdinetako neurriak egon daitezkeela, gaia bera konplexua delako. Beraz, nahiz eta kasuan kasu ongi ikusi behar den gaia dela uste dugun, laguntza eta babes erasoaren momentuan bertan, edo, baita gerora ere emango diogu. Gure prestutasuna erakutsi eta gure babes osoa adierazi, batez ere, bere hitza zalantzan jartzen den kasuetan.

**Baliabideak eskaini.** Kasu batzuetan, guk asetu ezin ditugun beharrak izan ditzake eraso bizi duen pertsonak; ez gara ahalguztidunak eta profesionalak, are gehiago esango dugu: ez du zergatik gure ardura izan behar. Hala bada, hauek nola, norekin eta non landu pentsatzen lagundu genezake, ezagutzen ditugun tresnak edo kontaktuak eskainiz: terapeuta feministak, formazio edo ikastaroak, abokatu feministak... Horregatik guztiagatik hasi gara Euskal Herriko Bilgune Feministako herrietako eta askotariko zonaldeetako kide feministei galdeginez, baliabideen-mapa osatzen.

**Osatze kolektiboa.** Kasu batzuetan, eraso jasan duenaz gain, kolektibo horretako guztiengan eragina izan dezakeen gertakaria izan daiteke. Kasu hauetan, zauri eta min kolektibo horiek sendatzeko espazioak eta baliabideak beharko dira.

## 2.3 ERASOA EGIN DUENAREKIN ZER?

Eraso egin duenarekin zer egin behar dugun eta nola jokatu behar dugun askotan plazaratzen den korapilo bat da. Guk bi norabideetan kokatu ditugu hauek: batetik, eraso egin duenak ez badu lanketa bat egin nahi, bestelako erabaki edo neurriak hartu daitezke. Bestetik, lanketa egin nahi badu, ordea, guk aukera horren alde egingo dugu. Azken finean, gure helburua delako pertsona horrek bere jarrera aldatzea eta berriro ez errepikatzea, ez gure espazio/herrietan, ez inon.

### 1) Egindakoa onartzen badu:

**Lanketa edo prozesu bat egiteko proposamenarekin joango gara.** Egungo sistema juridikoa punitiboa eta patriarkala dela badiogu eta ez badugu zigor sisteman sinesten, birgizarteratze prozesu feministak asmatu beharko ditugu. Enpatiatik **elkarrekin adostutako hitzarmena** lortzen saiatzea da gure proposamena. Garrantzitsua da berak asumitzeko modukoa izatea (ez soilik momentuko presioarengatik

onartzea dena, ze momentu horretan beldurtuta eta kezkatuta etorri daitezke). Baina zaila izan daiteke oreka bat lortzea: prozesua egitera animatu/bultzatu dezaken presio sozialaren eta atzera bueltarik ez duen heriotza soziala edo estigmatizazioaren artean.

Hemen bi norabide daude, gutxienez: bata, eraso pairatu duenari begira, bere beharrak berrosatzeko -erasoa egin duenak ardura bere gain hartuaz- egingo duena, kasuan kasu. Bestea, kolektiboari begira, edo osatzen duten komunitate horri begira egindakoa, hemen ere beste behar batzuk azaleratu daitezkeelako, adibidez, berriz ez gertatzeko bermea, adostasun beharra, kohesio beharra.

### **Hitzarmenean adostu daitezkeen hainbat gauza:**

#### **ESPAZIOAREN KUDEAKETA ETA MUGAK:**

Erasoa egin duena aldi baterako kolektibo batetik edo espazio batetik kanpo geratzea beharrezkoa eta eraginkorra izan daiteke. Alde batetik, erasotua izan denaren beharra bada, honek bere bizitza askatasunez egin ahal izateko. Beste alde batetik, gainontzekoak ere seguru sentitzeko eta kolektibo moduan erasoak gaitzesten direla azaleratzeko. Hala ere, garrantzitsua da hartzen den erabakia kolektiboa izatea eta adostasunean oinarritua egotea. Bestela, ez da denboran sostengarria izango (kontra daudenak boikota egin dezakete, edo eraso egin duena espaziotik agertzen bada jendeak ez du hartutako neurria mantentzearen ardura eta soilik kontzientziatuenak joango dira eraso egin duen pertsonarengana, honek suposatu dezakeen kargarekin). Normalean ia beti daude neurria gehiegizkotzat jo dezaketen ahotsak, baina epaituak izategatik ez dira ausartzen ezer esatera. Garrantzitsua da hauek behar duten tokian hitz egiteko lasaitasuna edukitzea eta adostasun zabala lortzea. Hala izango ez bada, beste momenturen batean eta espazio informaletan aterako dira, prozesua kaltetuz.

Kolektiboaz edo honek kudeatutako espazio posibleaz gain, badaude bestelako espazioak, izan fisikoak (herri mugimenduetako eremuak, tabernak, jaialdiak...), izan harremanezkoak (kuadrila, familia, lagunak). Mugimendu sozialetan gertatuko eraso sexistez ari garenez, ziurrenik arriskua dago eraso sufritu duen pertsona eta eraso egin duena topatzekoa, hala ere, joera horietan guztietan, agian, taldeak ez dauka bere erabakia aurrera eramateko gaitasunik, eta gertatu daiteke bertako kideren bat ados ez egotea hartutako neurriekin.

Horregatik oso garrantzitsua da akordioan konpromezuak edo neurriak ahalik eta argienak eta zehatzenak izatea: bakoitzaren funtzioa zein izango den, ze espazio mugatuko diren guztiz eta zeintzuk soilik eraso bizi izan duen pertsona bertan dagoenean, ze epeez hitz egiten ari garen (denborak agian ezin dira guztiz aurrez zehaztu, baina orientazio moduan epe batzuk markatu daitezke, konpromiso eta aldaketa pertsonalaren garapenaren arabera, baloratzen joango direna).

#### **ERREFERENTZIALTASUN PUBLIKOA (erasoa egin duena erreferente politikoa bada, edo musika talde batekoa, erreferente kulturala...):**

Kontuan hartu behar ditugu aurreko puntuan aintzat hartutako irizpide berberak. Hasieratik oso ondo



zehaztu behar da zer den behin-behinean egiteari utziko diona (zer egin dezakeen funtzio horri dagokionez, eta zer ez); ze espazio fisikotan edo ez fisikoetan (sare sozialak, adibidez) parte hartuko duen edo ez (non agertu daitekeen eta non ez); zenbat denbora edo zeren arabera egingo den jarraipena...

**PROZESUA EGITEKO BALIABIDEAK: kasu honetan, eraso egin duenak prozesu pertsonal bat egin beharko du, ezinbestean.**

Eraso motaren arabera, eta bere jarreraren arabera, erabaki daiteke zein den beharra eta zer den eskainiko zaiona edo bilatu beharko duena, adibidez: maskulinitateak lantzeko prest dagoen aritu/adituren bat edo gizon talde bat lortzea, askotariko formazio feministak, terapia indibiduala, instituzioetatik egon daitezkeen baliabideak... (Garrantzitsua da tresna horiek ikuspuntu feminista izatea, eta, bestela, baliabide ezberdinak uztartu daitezke paraleloki. Honek bereziki kezkatzen gaitu, izan ere, kasu askotan berme feminista gabe egin dira laguntza terapeutiko/psikologikoko prozesuak. Hutsune handia dago baliabide hauei dagokionean. Horregatik garrantzitsutzat jotzen dugu baliabideen-mapa bat osatzea.)

**JARRAIPENA:**

Eraso egin duenak prozesuan zehar hartutako konpromezuak apurtzen baditu, hasierako hitzarmen edo proposamena ekarriko diogu gogora berak hartu zituen ardurak eta adostutako erabakietan berresteko. Jarraipenean zehar edo inflexio puntuetan aurrera pausoak ikusten baditugu eta prozesua bide onetik badoa, hasierako hitzarmen hori moldatzen joan gaitzke, espazioak eta aukerak irekiz eta adostasun berriak erabakiz (beti ere alde guztiak jakinaren gainean egonda)

**2) Egindakoa onartzen EZ badu:**

Kasu honetan, uste dugu bestelako neurri batzuk hartu daitezkeela. Garrantzitsua da eraso jasan duen pertsonaren edota kolektiboaren beharrak kontuan hartzea eta kasuan kasu egoera aztertzea, erabakitzeko salaketa publikoa edo ekintza zuzena egingo den kolektibo mixtoaren edota mugimendu feministaren eskutik. Erabakiak beti kolektiboan eta ahots guztiak entzunaz hartzen saiatu behar gara denboran gero sostengagarriak izateko. Horregatik da hain garrantzitsua egitura baten beharra.

**2.4 PROZESUA SOSTENGATZEKO EGITURA**

**Askotariko kasuak egon daitezke** (eraso bizi izan duena eta eraso egin duena kolektibo berdinekoak izatea; bata bai, baina bestea ez; inor ez izatea kolektibo egituratu batekoa, baina bai mugimendu batean aktibo egotea; edo oinarri sozialaren parte edo gertuko jendea izatea; akanpada, jaialdi edo espazio “aske” eta politizatueta gertatu izana eraso...). Honen arabera errazagoa edo zailagoa izango da kasuaren ardura nork hartuko duen zehaztea, kontutan hartuta batzuetan aurrez zehaztutako protokoloak egon daitezkeela. **Baina ezinbestekoa da prozesua sostengatuko duen egitura bat egotea.** Kolektiboa bera

izan daiteke (nahiz ta gero kasua kudeatzeko talde txikiago bat sortu daitekeen pertsona zehatzekin, baita kolektibotik kanpo daudenekin ere), edo egoeraren eta aukeren arabera, talde bat edo sare bat sortu sortu daiteke kontrasterako, erabakiak hartzeko eta prozesua bultzatzen laguntzeko. Kasu konkretu batzuetan, antolakuntza eredu oso likidoa bada, edo ekimen puntual baterako sortutako egitura izanez gero, zailagoa izaten da ardura kolektiboa hartzea edo prozesua sostengatuko duen egitura martxan jartzea eta irautea.

**Ardura kolektiboa da.** Prozesua ezin da soilik pertsona gutxi eta kontzientziatu batzuen esku geratu, eta horregatik, estrategikoa iruditzen zaigu gaia komunitatearen arazotzat jotzea (nahiz eta esan bezala, egon daiteke informazioa eta prozesua kudeatuko duen talde txikiago bat edo pertsona zehatz batzuk). Hau da, horrelako eraso bat gertatzen denean, komunitateak huts egin duela ulertu behar dugu, horrela ulertzen ez dugun bitartean, komunitate horretan egongo diren batzuk soilik arduratuko baitira prozesu hori egiteaz, beste batzuk inolako lanketarik egiteko baliatuko ez duten bitartean. Gainera, ezin daiteke ahaztu erantzukizuna guztiona dela, taldeena, kolektiboena, jendartearena. Kontziente izan behar gara taldeko bat hori egitera iritsi bada, izan da besteok bide horretan botere bat ematen diogulako, jarrera asko baimendu izan direlako, gure laguna eta gertukoa denez, permisiboagoak garelako. Beraz, prozesuak aurrera egiteko, prozesuari aitortza eta babesa emango dioten egiturak behar dira. Gainera, garrantzitsua da inplikazio handiagoa izango duten pertsona horiek aitortzea eta zaintzea.

**Ondo erabaki nork/nortzuk hartuko duten ardura eraso jasan duenarekin eta eraso egin duenarekin hitz egiteko.** Ez da epaile lan bat, beraz, ardura hau hartzen duenak, lehenik, argitu beharko du zein helbururekin joango den batengana eta bestearengana, eta, bigarrenik, nola bermatuko duen hartu eman hau kalitatezkoa izatea: non elkartuko diren; zenbat kide izango diren orotara; zein informazio helaraziko zaion/zaien; eraso pairatu duenaren kasuan, nola eskaini sostengua pertsona biktimizatu gabe; eraso egin duenaren kasuan, nola lagundu gertatuaren kontakizun zintzo bat egiten... Konfiantzazko pertsona baten presentzia ere eskaini ahal diogu topaketa hau lasaiagoa izan dadin. Kasuaren arabera, gerta liteke sinesgarritasun beharrik gertatzen ez den interesgarria izatea kideetako bat erreferentziazko pertsona feminista izatea.

**Kasuaren jarraipena.** Zama handia suposatzen du halako konplexutasuna duten gatazkak kudeatzeko ardura izateak, batez ere herri mugimendu sozial horietan prozesuari jarraipena emateko egiturarik ez badago. Hala ere, uste dugu apustua izan behar duela eraso sexisten kudeaketa eta jarraipen taldeak sortzea. Denbora pasa ahala, zailagoa da prozesua sostengatzea eta hasieran adostutako hitzarmenek indarra galdu dezakete. Denborarekin eta hasierako zurrunbiloa pasata, jendearentzat gertatutakoak garrantzia galtzen du eta gertatu daiteke kolektiboak presente ez edukitzea. Edota kasuaren kudeaketa egiten zegoen egiturako jendea dagoeneko kolektibo horretan ez egotea. Horregatik, beharrezkoa da egitura bat (nahiz eta pertsonak aldatu) beti egotea. Jarraipena da kasuaren kudeaketetan agertzen den zailtasun handienetarikoa bat, izan ere, jarraipena nork egingo dion eta prozesua noiz arte iraungo duen galderak izaten baitira korapilo nagusienak. Horri horrela, ezinbestekoa eta garrantzitsua da noizbehinka “errefortzuak” egitea.

**Bilgune Feministakook edo feministok hemen ze paper jokatu nahi dugun erabaki** beharko genuke. Gehienetan, jarraipenak egiteko ardura mugimendu feministak, edota erasotzailearen kolektibo/eragile/taldeko emakume\* feministen gain jartzen da. Hori horrela, hainbat galdera datozkigu burura: soilik feministak izan behar gara kasuen kudeaketaz arduratzen ari garenak eta erabakiak hartzen ditugunak? Norarte gaude prestatuak horretarako? Beti egon behar gara kudeaketa taldeetan, ala puntualki ahokulari gisa? Edonork eraman dezake prozesu hauen jarraipena edo kanpotik laguntza eskatu beharko genuke? Lan ordaindua izan beharko litzateke? Edo taldekideen bizkar geratu beharko liritezke kasu hauen kudeaketak? Zer izango litzateke idealena eta zein egungo egoerei erantzuteko irtenbiderik errealea? Prozesu honetan guztian ezin daiteke ahaztu, nahiz eta intentzio onarekin egin, oso delikatua eta konplexua den gai batez ari garela; finean, jokoan baitago/baitaude pertsona baten/batzuen segurtasuna eta ongizatea. Momentuz, ahal duguna ahalik eta hobekien edo ahal dugun moduan egiten ari gara, eta hori perspektibaz pentsatu eta eztabaidatu behar dugu, eta hori da eskuartean dugun beste erronka bat.

Batzuetan, ziurrenik, erasoia jasan duenarekin eta erasoia egin duenarekin lanketak egiteaz gain, beharrezkoa edo gomendagarria izango da kolektiboko kideak edo **mugimenduko kideak askotariko gaietan formatzea eta giza taldeetan sortzen diren beharrei erantzuteko bideak hartzea, are gehiago, hain errotua ez dagoen justizia berrosatzailearen bidetik jotzeko apustua egiten badugu**. Izan ere, ez du zertan kasu konkretu horren inguruan izan beharrik, zabalagoa izan daiteke formakuntzarako gaitegia, esaterako gai hauek landu daitezke: botere harremanak, rolak, funtzionatzeko moduak, lidergotzak, rangoak, justizia eredu desberdinen kokapenak eta esperientziak... Argi eduki behar dugu askotan ez duela soilik genero aldagaiak eragiten, horrekin batera eragina dute, besteak beste: adinak, kolektiboan aritutako urteek, erreferente politiko edo kulturalak... Alde horretatik, kolektibo osoak baimendu du egoera hori gertatzea, eta, horrenbestez, guztion ardura da errora joatea eta berriro ez errepikatzeko bermeak ziurtatzea.

**Kasua kudeatzen eta sostengatzen daudenen zaintza**. Oso prozesu zailak izaten dira eta energia asko eskatzen dute, ondorioz, eragin emozional, tenporal eta sozial garrantzitsuak sortu ditzakete; batzuetan, inplikaturako pertsonen barruak mugitzen zaizkie, eta besteetan, kideei barruak mugitzen zaizkie besteen bizipenak entzunda, kanpoko presioek zein komentarioek eraginda.

**Komunitatearen beharrak**. Komunitatea ere zauritu egin da, hau da, taldekide batek erasoia egiten badu, nahitaez, taldeari eta kideen arteko harremanari eragingo diola ulertu behar dugu, eta beraz, komunitatea bera ere osatu behar dugu. Horregatik guztiagatik, talde-ahalduntze prozesu kolektibo bat bultzatu behar da, gaia lantzeko, zauriak aitortzeko eta minak sendatzeko; hori gutxi baliz bezala, berriro ez gertatzeko, zaintza bermatzeko, eta prozesua sostengarri izateko.

**Aitorpena**. Prozesuan asmatu ditugun gakoak edo ongi atera diren gauzak aitortzea, amaierara iritsi diren prozesuak garaipen txiki bezala ospatzea, baita alde guztietatik egin den lan eta inplikazioaren errekonozimendua ere. Askotan soilik gaizki atera denarekin edo zailtasunekin geratzen gara, sentsazio gazi gozoarekin geratu ohi gara... Baina gogoan izan behar dugu, orokorrean, guztiontzat zailak eta berriak

diren prozesuak direla hauek.

**Balorazioa.** Prozesuan zehar bezala, amaieran ere, ezinbesteko atala izango da balorazio bat egitea; hasieratik amaiera arte emandako urrats guztiak kontutan hartuko dira bertan. Interesgarria izango da hasieran jarritako helburuak bete diren edo ez baloratzea, erasoak jasan duenaren hitza entzutea (nola sentitu den prozesuan zehar, babestua, ahaztua... sentitu den, sinesgarritasun falta egon den...), erasoak egin duenak prozesuarekiko eduki duen jarrera eta erantzuna zein izan den aintzat hartzea, komunitatearen parte hartzea nolakoa izan den jasotzea, lan karga eta ardurak ondo banatu diren ikustea... Garrantzitsua izango da balorazioak ere erregistratuta geratzea, izan ere, prozesu guztietatik zer ikasi eta zer hobetu (eta noski, zer eta nola berriro errepikatu) edukiko dugu.

### 3. AURREZ AURRE DITUGUN ERRONKAK

Jakin badakigu gai mardul, sendo eta konplexu baten aurrean gaudela, eta, horregatik guztiagatik, prozesu honetan guztian ezin dugu ahaztu martxan jarri behar ditugula pertsonen segurtasuna eta errespetua bermatzeko baliabideak. Azken finean, jokoan baitaude kide horien bizitzak. Hala ere, aintzat hartu behar dugu ez dagokigula guri bakarrik, eta ezin dugula egungo jendarte patriarkal eta kapitalistaren errailetako arazo hau zutoinetik eraldatu/konpondu.

Hala ere, bide honetan guztian, arestian aipatu eta landu diren hainbat gako jaso ditugu, baina interesgarria dela deritzogu, oraindik erantzun zehatz eta zurrunik ez duten eta eztabaida luze baterako diren erronka nagusi nabarmenenak plazaratzea; eztabaidatzeko interesgarriak izan daitezkeelakoan.

#### 3.1 ERRONKAK

Prozesu honetan guztian garrantzitsua den gai eta erronka nagusienetarikoa bat da **justizia ereduarena**. Izan ere, horrelako prozesuetan guk zerbait erabakitzen dugun bakoitzean, erabaki txikiena bada ere, jakin behar dugu erabaki horien atzean justizia eredu jakin bat dagoela. Era berean, pixkanaka lantzen ari garen justizia eredu feministaz ari garenean, prozesu hauek gidatzen ditugunean gure irizpide txikiak markatzen dituen iparrorratzak ere horiek direla jakin behar dugu.

Egungo justizia eredu patriarkala eta punitibista da, hau da, zigorrean oinarritutakoa. Gauza bat da, beste tresna edo baliabiderik ezean, bide penaletik jotzea eraso egoerak kudeatzeko, baina zein da gure diskurtsoa? Zein da gure proposamen feminista? Eta praktikan nola islatuko da?

Gu ere eredu horretan hezi gara eta gogoeta sakon bat egin eta justizia ereduaren ezagutzan sakondu ezean,

eredu punitibista horren balioak birproduzitzen jarraituko dugu. Alternatibak egon badaude...

Bide horretan, autodefentsa feminista beharrezkoa da, egun, oraindik gure bizitzak daudelako jokoan, baina estrategikoki beste gauza batzuk ere pentsatzen joan behar gara (erasoa jasan duenaren eta kolektiboaren berrosaketan-ahalduntzean gehiago lagunduko dutenak).

Eraso eta indarkeria egoerak iraultzeko prozesu eta metodologietan pentsatzen joatea ezinbestekoa dela uste dugu, eta geroz eta esperientzia gehiago ezagutzea; batetik, eraso jasaten dutenak ahaldundu daitezten, eta, bestetik, eraso matxistak gutxitu daitezten eta eraso egin duenak bere gain har ditzan erasoaren ondorioak.

Gauzak horrela, nahiz eta orain arte ez dugun teknika multzo edo prozesu zehatz bat bete-betean aurkitu, eta bide horretan, arakatzen eta eredu propioak sortzen ari gara, pixkanaka-pixkanaka, bai osatze zirkuluetan, bai taldeen bidelaguntzan.... Justizia berrosatzailearen filosofiaren gainean lan egiteko hautua egiten dugu. Nahiz eta justizia eredu honek ez duen justizia tradizionala ordezkatzeko momentuz, azken honek ez bezala, justizia berrosatzaileak gatazkei errotik helduko die.

### **Bitartean, ezinbestean, hauek dira eskuartean ditugun erronka nagusiak, epe motzean zein ertainean:**

#### ***Espazio seguruak sortzea:***

Erasoak non eta nola pairatzen ditugunaren inguruan, orokorrean, gure iruditegian haxe da dagoena: ezezagunek erasotzen gaituztela, espazio publikoan, gauzez, toki ilunetan... Modu horretan, zaila da espero izatea gure kide, lagun edo hurbilekoa den ezagun batek erasotu gaitzakeela, edo are gehiago, espazio berberak elkarbanatzen ditugun batengandik erasoak jan ditzakegula pentsatzea. Hori dela eta, espazio horietan lasai egoten gara, eta, beraz, zailagoa egiten zaigu erasoak identifikatzea eta adieraztea. Beraz, leku guzti horietan ere, edonolako erasoak salatzeke espazio seguruak sortu behar dira, hau da, marko hauetan salatzeke aukera izan behar dugu; sinestuko gaituztela konfiantza izan behar dugu, epaituak izango ez garela jakin eta ziur egon behar gara babes bat jasoko dugula.

#### ***Baliabide feministak jasotzea eta ezagutaraztea:***

Baliabide feministak sortzen eta ezagutzen joan behar gara (terapeutak, osatze eta ahalduntze taldeak, konfiantzazko abokatuak...). Guzti hauek batez ere, emakumeen\* osatzerako dira, baina baita ere eraso egin duen pertsonarekin lanketak egiteko, izan ere, orokorrean oso jende gutxi dago honetarako prest. Bestalde, garrantzitsua izango da taldeen zaintza zein formaziorako baliabide feministak edukitzea.

#### ***Nork/nortzuk egingo du/te prozesu hauen kudeaketa eta jarraipena?***

**Kolektiboek ardura haien gain hartu behar dute.** Kolektiboaren arazoa da eta ondorioz, hori prebenitzearen eta kudeatzearen ardura kolektiboa izan behar du. Fokua kolektiboan jarri behar da, berriro ez gertatzeko bermeak kolektibotik datozelako, kasu partikularretik at, alegia. Erasoa bat gertatzen

denean, taldean landu behar dira horren jatorria eta ondorioak.

Hau oso nabarmena izan daiteke, baina kasu gehienetan horrela egiten ez dela ikusi ahal izan dugu. Erasoa gertatzen den unean, guztion aldetik larritasuna, salatzekeo beharra eta erantzun bat emateko prestutasuna agertzen da, baina ostera, kolektibo horretatik talde edo pertsona gutxi batzuk geratu ohi dira gaiaren ardura zein jarraipenarekin.

### **Hona hemen, bide horretan, edozein talde edo kolektiboetan aintzat hartu beharreko hainbat ekinbide:**

**Prebentzio neurriak hartzea.** Protokoloak egiteko prozesu parte hartzaileak egin behar dira. Dokumentu soil bat edukitzea helburua bada soilik, jendeak ez du inolako lanketarik egingo, eta, beraz, ez du berau barneratuko. Horren adibide argiak dira kasu baten aurrean aurkitzean sortzen diren kontraesanak, galderak, protokoloaren inguruko zalantzak...

**Egitura propioak sortzea.** Gaur egun, ez dago inolako egiturarik mugimendu sozialetan gertatzen diren eraso sexistak kudeatzeaz arduratzen denik (ez badira eragile zehatz bateko kide pare bat), eta, beraz, **momentuz kanpoko laguntzaren beharra** daukate kolektiboek. Hala ere, eskuartean dugun erronka nagusi bat hauxe da: eragileek barne mailako erasoei aurre hartzeko egitura propioak sortzea. Era berean, jakitun gara egitura edota espazio hauek sortzeko eta diseinatzerako orduan, gabezia asko daudela; izan ere, zalantza eta beldur asko ditugu prozesu hauek zailak, korapilatsuak eta gatatzatsak izan daitezkeelako. Horregatik guztiagatik, uste dugu hausnarketa eta prozesu kolektibo bat bultzatu behar dugula gaiaren inguruan, hau da, beste eragile batzuekin batera pentsatu beharko dugu zeintzuk diren besteak beste, barne-eraso sexisten kudeaketarako modu egokiak, jendea espezializatzekeo bideak, diru-iturriak, formatuak (liberatuak bai edo ez), eraso egin duen pertsonari aplikatu beharreko neurriak...



## Euskal Herrian, 2018ko abenduan



euskal herriko  
bilgune feminista

*\* Maketazio lan hau Inder Bhattik Euskal Herriko Bilgune Feministarentzat 2017ko azaroak 25erako sortutako kartelean oinarrituta gauzatu da.*